



ronikak eta iruzkinak

Laguntza publikoen kontrolaren erreforma eta horren eragina Euskadin

(Reform of the control of public aid and its influence in the Basque Country)

ETXABE JAUREGI, Jon

Adeco
Garibai, 6 - 1. B
20004 Donostia
jetxabe@adeco.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 19; 47-53]

Europar Batasunak lehiaren defentsarako duen politika funtsezko tresna da barne merkaturaren funtzionamendu egokia bermatzeko. Azken finantza-krisialdiaren ondoren estatu laguntzei buruzko filosofia hankaz gora erori da, sistema ekonomikoa kaos batean murgiltzea lortu delarik. Era berean, euskal erakundeek alor horretan legeak egiteko ahalmena ote duten zalantzan jarri dute, hartarako eskumenen jabe izan arren. Guztiarekin ere, eskualdeen eskumenak mantentzearen aldeko jarrera hartu du Europar Batasuneko jurisprudentziak. Azore Uharteen kasuan hasi zen joera hori begiztatzen, eta berretsia gertatu da, euskal foru erakundeek harturiko neurriak zirela-eta, Euskadiko Auzitegiak Nagusiak berriki emandako epaian.

Giltza-Hitzak: Estatu laguntzak. Lehia zuzenbidea. Laguntza horizontalak. Eskualde laguntzak. Interes orokorreko zerbitzu publikoak. Laguntza publikoak Euskadin. Laguntza ilegalak. Azore epaia.

Za política de defensa de la competencia de la Unión Europea es una herramienta fundamental para garantizar el correcto funcionamiento del mercado interior. Como consecuencia de la última crisis financiera, la filosofía de las ayudas estatales ha caído por los suelos, habiéndose logrado que el sistema económico se sumerja en el caos. Asimismo se ha puesto en duda la potestad de las instituciones vascas para redactar leyes en este ámbito, aunque tengan competencia para ello. Con todo, la jurisprudencia de la Unión Europea ha tomado postura a favor de mantener las competencias de las regiones. Esta tendencia comenzó a ser percibida en el caso de las Azores, y ha quedado confirmada en la sentencia recientemente emitida por el Tribunal Superior del País Vasco en torno a las medidas tomadas por las instituciones forales vascas.

Palabras Clave: Ayudas de Estado. Derecho de la competencia. Ayudas horizontales. Ayudas regionales. Servicios públicos de interés general. Ayudas públicas en Euskadi. Ayudas ilegales. Sentencia Azores.

Za politique que conduit l'Union Européenne en matière de défense de la concurrence est un outil fondamental pour garantir un fonctionnement correct du marché. Suite à la dernière crise financière, la philosophie concernant les aides étatiques a été totalement bouleversée, tandis que le système économique s'est enfoncé dans un véritable chaos. De même, les institutions basques ont douté de leur capacité à légiférer dans ce domaine, alors qu'elles détiennent des compétences pour cela. Cependant, la jurisprudence de l'Union Européenne a pris une position en faveur du maintien des compétences des régions. Cette tendance a commencé à être examinée à partir du cas des Açores et elle a été confirmée, suite aux mesures prises par les institutions forales basques, dans un jugement prononcé récemment par le Tribunal Suprême d'Euskadi.

Mots-Clés : Aides de l'Etat. Droit de la concurrence. Aides horizontales. Aides régionales. Services publics d'intérêt général. Aides publiques en Euskadi. Aides illégales. Sentece Azores.





Jardunaldian, besteak beste ondorengo hizlariak parte hartu zuten, ezkerretik eskubira: José Antonio Rodríguez Míguez, Joseba Andoni Bikandi, Nieves Apeztegia eta Joaquín Fernández Martín. Donostia, 2008.11.19 (Iturria: Eusko Ikaskuntzaren Argazki Bilduma).

Hitzaldiei hasiera **José Eugenio Soriano García** eman zien, eta sarrerako diskurtsoaren izena *Exentzio erregelamenduak eta hauen aplikazioen ondorio juridikoak* izan zen. Hasteko, esan, teoriarik estatu laguntzak desagertuak direla. Merkatua estatuaren erakunde bat da, eta beraz, hura erregulatzea ezinbestekoa gertatzen da, ez baita posible merkaturik estaturik gabe. Merkatu erregulatuak diren erakundeek nolabaiteko independentzia behar dute. Agentzi erregulatuak bere AAA ziurtagiriak emanez engainatu egin gaituzte. Non dago orain AEBn erantzukizuna? Espainiako Banku Zentralak askoz ere era zuhurragoan jokatu du, eredugarri, esan genezake; eta honen ondorioz, Espainiako banketxeak beste estatuarekin alderatuz, askoz ere eragin txikiagoa jasan dute. Arazo honi europar eta nazioarteko ikuspuntutik heldu behar zaio. Non daude erantzukizunak? Greenspan modeloak ez du jakin merkatua ongi bideratzen, eta banketxe zentralak parlamentuen aurrean erantzun beharko lukete. Bestalde, hizlariak zioen Europar Batasunak europar administrazio prozedura lege bat behar duela. Estatu bat balitz bezala funtzionatzea ezinbestekoa du. Krisialdiak ezin du erreforma legalen iturri bihurtu, alderantziz baizik, krisialdiak ekiditeko laguntza bat behar dute izan. Enpresen krisialdia ezin da banan-

banan analizatu EEBBetan egin den bezala, Lehman and Brothers edo AIG kasuetan. Lehena erori da baina bigarrena ez, eta guzti hori estatu laguntza interpretazio partikular bat egin delako. Horrela, lehiaren zuzenbidea egoera honen lehen biktima juridiko bihurtu da. Nazioarteko finantza krisiaren eraginez lehia zuzenbidea krisian murgildu da. Orain urte bete egoera hau pentsaezina zen. Kontrol sistema eta zorrozatasuna erori dira, eta hala nolako interpretazio eta arbitrariotasuna nagusitu dira. Orain arte indarrean zegoen 1659/1999 exentziozko erregelamendua beste erregelamendu 800/2008 (2008/08/06) honek ordezkatu du. Arau pakete edo arau multzo berri honek legezkatze sistema berri bat sortu du, non dena bere batasunean interpretatu behar den eta ez orain arte egin izan den arau bakarkako interpretazioa. Ikatza, altzairua eta nekazaritza erregelamendu honen aplikaziotik kanpo geratzen dira, exentzioa aplikatzen zaielarik. Dena dela, kritika bezala azaltzen da Pymeentzako pentsatutako arau bat dela, eta ez enpresa handientzat.

Ondoren, **Juan Arpio Santacruz**ek *Laguntza horizontalak: I+G. formakuntza, enplegua eta ingurumena* gaia jorratu zuen.

Enpresa guztiek jaso ditzakete laguntza horizontalak zein lurraldetan kokaturik dauden kontutan hartu gabe. 800/2008ko Erregelamendu orokorra kategori exentzio bezala ezaguna da. Benetan, 1998. urtean sortu zen aldaketa garrantzitsua, 994/98 Erregelamenduaren ondoren, honek Ituneko 93 eta 98 artikulua interpretatzen zituelarik. Estatu laguntzei buruzko politika Batzordearen esku geratu zen, eta honek erabaki zezakeen zein laguntza ziren bateragarriak merkatu amankomunarekin. Horrela, Ituneko 87. artikulua (lehengo 94.a), non eskumena Batzordeari ematen zaion erregelamenduak sortzeko ahalmena/ Proposamena 1*: non eskumena Batzordeari ematen zaion erregelamenduak sortzeko/edo, proposamena 2*: non eskumen Batzordeari ematen zaion erregelamenduak sortzeko ahalmena. 2001. urtean, enplegua sortzeko laguntzak emateko erregelamendua sortu zuen, eta beste bat 2004. urtean Formakuntzari zegokiona. Erregelamendu berri honek aurreko beste guztiak ordezkatu ditu, eta aldaketa garrantzitsu bat suposatu du testu bategin bat izateaz gain, beste hainbat berritasun gehitzen dituelarik: 1) Sistemaren koherentzia handiago bat; lehen banandua zegoena orain elementu amankomunekin osatua geratzen da. 2) Lehen jaso gabe zeuden laguntza kategoriak gehitzen dira (ingurumen laguntzak <<17 eta 19. artikulua>>) lehen arau zuzentzaileak zeuden tokian. Lehen laguntzak jakinaraziak izan behar ziren. Enpresa handientzat I+G laguntzak azaltzen dira, lehen enpresa txiki eta ertainentzat (ETE) bakarrik zeuden bitartean. Orain ez da bereizkeriarik egiten enpresa handien eta txikien artean. Berrikuntzarako laguntzak sortu dira. Esan dezakegu orain enpresa publikoak segurtasun juridikoan eta laguntzak ematekoan malgutasunean irabazten atera direla. Administrazio publikoak emandako laguntzak erregelamenduari atxikitzen bazaizkio, ez dago zertan laguntzak jakinarazi. Orain, ingurumen laguntzak erregelamenduaren esparrutik kanpo badaude, Batzordeari jakinarazi behar zaio. Batzordeak, estatu laguntzei dagokienez, 2005-2009 urteetarako plan bat onartua du. Honela, laguntza publikoei ematen zaion diru kopurua analizatu behar da, merkatuan sortzen diren akatsak zuzendu, ekitate irizpideak bete. Era berean, kontrolatu beharra dago nora doazen laguntza publikoak, neurri ekonomikorik suposatzen duten edota lege obligazio bat betetzeko emanak izan diren ingurumen laguntzak. Ingurumen arloan, estandarren erregulazio irizpideak bultzatu behar dira: kutsatzen duenak ordaintzen du. Erregelamenduaren 18. artikuluan jasotzen dira laguntza batzuk, goi mailako estandarretara egokitzeke laguntza emateko arauak; kutsadura baxuko garraio ibilgailuak garatzeko eta abar.

Batzordeak 2002. urtean BPG %3ko laguntzak emateko helburua du 2010. urte bitartean I+G+Brako, honek Batasunaren ekonomi hazkuntza bultzatzen lagunduko duelakoan. Laguntzak ematerakoan helburu ideala litzateke %2a era pribatuan finantzatzea, eta beste %1a laguntza publikoen bidez. Enplegu laguntzei dagokienez, erregelamenduaren 40-42 artikuluetan jasotzen dira laguntzak. Hauetan aldaketak txikiagoak izan dira; zilegi dira %60tik %75erako laguntzak ezgaitasunagatik edo %50ekoak gizarte-egoera ahuleko taldeentzat.

Isabel Fanok, *Lurralde laguntzak, ETEi laguntzak eta minimis laguntzak* aztertu zituen, laguntzen sustatze efektua eta gardentasun printzipioak azpimarratuz. Europar Batasunean, 2006. urte amaieran, lurralde laguntzen mapa berri bat egin zen beste estatu batzuen inkorporazioa zela-eta. Laguntza hauek europar lurralde batera inbertsioak erakartzeko emanak izaten dira. 2006. urtera arte, gehienezko laguntza %20koa izan zitekeen. 2007-08 urteetarako, laguntzen gehienezko muga %10ean geratu zen, eta Euskadiri dagokionez, Nerbioiko ezker aldean bakarrik onar daitezke. Diru kopurutan hitz eginez gero, enpresa bakoitzari 1,5 milioi euro eman dakizkioke, eta hauetatik, %70a kapital eran. 2009. urtetik aurrera, hasierako kapitalean eta enpresa berriaren kapitalean bakarrik izango dira, eta hauetatik %50a kapital pribatuaren inbertsioa izan beharko da. Minimis deituriko laguntzei buruz, esan, jakinarazpena ez dela beharrezkoa; izan ere, gehienezko diru kopurua 200.000 eurotako besterik ez da.

José Antonio Rodríguez Míguez-ek *Interes orokorreko zerbitzu ekonomikoaren finantzazioa* landu zuen. Ituneko 87.7 artikulua estatu laguntzak hipotesi konplexu bat bezala definitzen direla zioen, ze definizioa negatibo eran azaltzen da, eta ekonomiarekin bateragarri ezinezkoak diren laguntzak aipatzen ditu. Estatu laguntza bidegabeko ekonomi abantaila bat bezala definitu behar da. Laguntzak ez daude debekatuta, araututa baizik. Zama kontraprestazio bategatik emandako laguntza konpentsazioa da. Estatuak interesa dute laguntzen kontrola gerta ez dadin. Ferring (2001) eta Alkmar (2003) epaiak eman arte, laguntzak jakinaraziak izan behar ziren. Epai hauen ondoren, jakinarazpen irizpideak aldatuak izan ziren interes orokorreko zerbitzu baten kontraprestazioak zirenean. Horrela, ondoren aipatzen diren lau baldintzak betez gero, emandako laguntzak ezin dira estatu laguntzatzat jo. 1) Enpresa onuraduna legez izendatua izan denean zerbitzu orokor bat betetzeko. 2) Konpentsazio parametroak neurtzeko kalkuluak era objektibo, neurgarri eta argiak direnean. 3) Konpentsazioa beharrezkoa

denean eta mozkina arrazoizkoa 4) Enpresaren hautaketa enkante publikoaren bidez egin bada edo existitzen den enpresa parekagarri bat erabili denean. Alkmar epaiaren baldintza guztiak betez gero, erabaki hauek ez dute zertan jakinaraziak izan behar, zeren kasu hauetan, ez dago abantailarik, eta beraz, ez dago laguntzarik, konpentsazioa baizik. Beste kasuetan, erabakien komunikazioa ezinbestekoa da. Konpentsazio hutsa ez da estatu laguntza bat.

Nieves Apeztegiak *Irrati-difusiozko zerbitzu publikoak eta estatu laguntzei* buruz zera zioen. Eremu honetan gaur egun ez dago monopoliorik, baina bai enpresa pribatuen aldetik hainbat kexa. Berak ere Alkmar epaiaren aipamena egiten du zerbitzu publikoaren misioaren definizioa botatzerakoan; hots, garbia eta zehatza behar du izan helburuak. Kontrola eta kontraprestazioaren proportzionaltasuna ezinbestekoak dira, eta zerbitzu publikoaren kostuak ezin dira gainditu. Irrati-difusiozko zerbitzu publikoa zerbitzu publiko berezizat jotzen du. Ez dago honelako beste zerbitzurik aldi berean biztanleari hainbeste zerbitzu desberdin eskaintzen dionik. Paper handia jokatzeko du, herriaren aniztasun kulturalak sustatzen ditu, informazio programak eskaini, hezkuntza programak, pluralismoa bermatu, entretenimendua bermatu; eta guztia, doan.

Irrati-difusio publikoek kalitateko zerbitzu publikoa eskaini behar dute, teknologia berriak aprobetxatuz. Medio publiko eta pribatuen arteko elkarbizitza oso ohikoa da Europan. Finantzaketa-eredu bakarra edo mistoa izan behar da. Finantzaketa mistoa zertan datza? Kanon bat, gehi publizitatea eta produktuen salmenta. Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak, gehi produktuen salmenta eta abarrek osatzen dituzte finantza baliabideak.

Estatuaren laguntzak dituen eraginaren analisia kasuz kasu egingo da. Oso gutxitan ebatzi du arlo horretan Europako Auzitegiko jurisprudentziak. Portugalgo kasuan eman berri den epaia: bada zerga-salbuespenengatiko estatuaren laguntza bat.

Holandako telebistaren kasua: Jarduera-kategoria nagusia eta ondokoa dago. Jartzen den soberakina, % 10a baino handiagoa ez bada, ez da itzuli behar; bestelako kasuan, bai. Beste batzutan, kontuen bereizketa egiten da (TVE korporazioa).

EITB korporazioa ondoko enpresek osatzen dute: ETB 1 eta 2, Euskadi Irratia, Radio Vitoria, ETB3, ETB4, Internet eta satellitea. Legeak zerbitzu publiko diren entitate bezala jasotzen ditu, 2002an sortu zenetik.

Finantzaketa: mistoa. Ez du zorpetzerik. Kontabilitate analitikoak darama enpresak. Aurrekontuen kontrola parlamentuan edo kontu-auzitegian egiten da.

Etorkezuneko esparru juridikoa: 2001eko batzordearen komunikazioaren arabera, jardueren bereizketa sendotzea da, tradizio juridikoak gordetzeko askatasuna izatea, euskara sendotzea, filmen % 5aren finantzaketa, euskal kirola sustatzea, pilota, traineru-estropadak, bertsolariak, etab.

Enpresa pribatuek publizitatea desagertzea eskatzen dute; dena dela, publizitateak medio publikoetan jarduten jarraitu behar duela dio.

Joaquín Fernández Martín-ek *Posta-sektorearen finantzaketa publikoa* gaia jorratu zuen.

Alor honetan, xedea zen 2010era eskualdeko laguntzarik gabe iritea, eta laguntza horizontalak soilik uztea.

Gardentasunezko zuzentzarauaren helburua, juristek sortutako nahasmendua argitzea izan da, eta estatu kideen arteko konpentsazio-erregimenak egokitzea. Era berean, atal batzuk gainditzen ez dituzten konpentsazioen kontrola eramatea eta 86-2 CE artikulua argitzea. 86-3 artikulua Batzordeari jakinarazteko salbuespenari buruz dihardu. Ekonomia-interes orokorreko arau-multzoa ez zaio aplikatzen aire eta itsas garraioari, arau *sui generis* batzuk dituzte. Juristek sortu dutela nahasmendua dio. FFSA kasuen epaiak (1997), konpentsazioak daude zerbitzu batzuk eskaintzeko obligazioa dagoenez. "Konpentsazioa = laguntza" ideia argitu behar da.

2007ko datu argitaratuen arabera, I+G gastuak = Europan funts publikoetarako aurreikusitako gastuen % 1,84a izan ziren. Espainiak % 1,20a gastatu zuen, eta laguntza publikoa % 0,5ekoa da. Finlandia besterik ez da iristen helburura: BPGren % 3a.

– Enplegurako laguntzak: 40-42 artikuluetan zehazten dira; aldaketak ez dira handiak. Laguntza gehiago desgaituentzat; % 60tik % 75era. Larria bada, gehiago.

Behartsuak: adinarengatik enplegua lortzeko zailtasun berezia dutenak; % 50eko laguntzara irits daitezke.

Isabel Fano-k *Eskualdeko laguntzak, ETEei laguntzak, eta minimis laguntzak* azaldu zituen. Laguntzak ematerakoan pizgarri-efektua eta gardentasun-printzipioak garrantzitsuak dira.

2006ko amaieran, eskualdeko laguntzen mapa berria onartu zen, EB zabaldu zela-eta. Europako eskualde batera inbertsioak erakartzeko asmoa duten laguntzak dira. 2006ra arte, gehienez % 20koa zen laguntzen muga, eta orain, % 15era igaro da Nerbioiko ezkeralderako. Gaur egun, gehieneko muga % 10ekoa da (2007-08). Soilik zonalde horretara mugatzen dira. Laguntza guztien baturak ezin du 7,5 milioi euroko kopurua gainditu enpresa/proiektu bakoitzeko; hots, enpresa berriak, enplegu-hazkundera, emakumeentzako proiektuak, kontsultoretza.

Enpresa-laguntza batzuetan, 1,5 milioi euro ematen dira enpresako, % 70 kapital modura.

2009tik aurrera, hasierako kapitala eta enpresa berriko kapitala osatzerakoan, gutxienez finantzaketaren % 50ak inbertsio pribatukoa izan behar du.

Minimis laguntzak: ez da beharrezkoa hauek Batzordeari jakinaraztea, eta zenbatekoa 200.000 ?-koa da.

José Antonio Rodríguez Míguez *Interes Orokorreko Ekonomia Zerbitzuen finantzaketa-ri buruz aritu zen.*

Itunean jaso dagoen 87.1 artikuluko laguntza bat hipotesi konplexua da, definizioa negatiboa baita, eta ekonomiarekin bateraezinak diren laguntzak deskribatzen baititu. Justifikatu gabeko abantaila ekonomikoa da. Laguntzak ez daude debekatuta, baina araututa daude. Kargen kontraprestazioengatik konpentsazioak laguntzak dira. Zerbitzuen finantzaketa aztertzerakoan estatuak interesa dute kontrolik izan ez dadin.

Laguntzak jakinarazi egin behar dira, eta Batzordeak ebatzi dezan itxaron, eta filosofia horrek Ferring (2001) eta Alkmar (2003) epaietara arte irauten du. Zerbitzu orokor bat eskaintzeagatik kontra-prestazioa ez da laguntza publikoa, baldin eta 4 baldintza betetzen badira:

1. Enpresa onuradunari lege bidez esleitu bazaio zerbitzua eskaintzeko ardura.
2. Kalkuluak neurtzeko parametro objektibo eta neurgarriek argiak izan behar dute.
3. Konpentsazioak beharrezkoa izan behar du, eta arrazoizko onura bat eskaini.
4. Enpresaren hautapena lizitazio publiko bidez egin bada edo enpresa parekagarri baten existentziaren bidez.

Alkmar epaiaren baldintza guztiak betetzen badira, ez dira jakinarazi behar, ez dagoelako

abantailarik, eta beraz, ez delako laguntza, konpentsazioa baizik. Bestelako kasuetan, jakinarazi egin behar da. Konpentsazio hutsa ez da Estatu laguntzatzat jo behar. Ferring epaiak adierazten du legezko betebeharra duen konpentsazioa ez dela laguntza. Geroago, Auzitegiak analisi ekonomikoko landuagoa egingo du, eta Alkmar epaia etorriko da (2003-C-280/00). Laguntza izan ez dadin ekitaldi ofizial bat egon behar da; alde aurretik zehaztu behar da formula era objektibo eta gardenean; laguntzak proportzionatua izan behar du; eta azkenik, lizitazio publiko bat eduki behar du, ahalik eta kostu gutxiena izan dezan. Efizientziarik gabeko kostua kendu behar dela esaten da; kontzeptu hori kenduz gero, ez dago laguntzarik. Bestalde, estatu kideek emalea *ad hoc* hautatzen jarraitu nahi dute. Enpresa konparagarriaren kontzeptua agertzen da, baina hipotetikoa da hori. Horrelako kasuetan, jakinarazte-salbuespena dago.

Kategoriaren arabeko salbuespenak; atalaseari dagokionez, 100 milioi euroko fakturazioa edota 30 milioi euroko konpentsazioa gainditzen ez dutenak salbuespena daude, Erkidegoko neurriera ez iristeagatik. Era berean, sektorearen arabeko salbuespenak daude: osasuna, ikerketa, etxebizitza soziala, aire eta itsas garraioa, uharte edo penintsulako linea-garraioen konpentsazioak, eta urtean 300.000 bidaiari baino gutxiagoko aireportuak.

Enpresa publiko baten kostu garbia kalkulatzeko, galeren parekatzea egiten da, galeretan egiten baitituzte eragiketak, eraginkortasunik ezaren kostua estali behar baitute konkurtsora ez joateko. Sektorearen arabeko zentzuzko mozkin bat analizatzen da; adibidez, posta-sektoreak lehia du enpresa pribatuan, eta horregatik, arrisku bat dago. Kostu finko handia dago, eta hainbat jarduera eta produktu ditu. Chronopost kasua: Ez dago abantailarik, jarduera nagusiak kostu arruntak jasaten baditu. Laguntzak dituen jarduera nagusiaren bidez finantzatzen dira kostu aldakorrak, hein batean.

Estatuak jardueraren jarraipenari eusteko ematen ditu laguntzak. Estatuak laguntzeko betebeharra dute, baina era berean, berme mugagabea mugatu egin behar dute, zerbitzu publikoak duen estatus berezia gordez, betiere. Poste Française-ren kasuan, langileak funtzionarioak ziren, eta langileen gizarte-segurantzako kostuak jasan behar zituzten, baliabide handiko monopolioak baitziren. Orain, Batzordea kostu anormalaz hitz egiten hasi da, enpresa lehian funtzionatzen hasteko presta dadin. EDF: estatuak deskargatu egin zuen enpresa, pentsioen kostuaren arloan Gizarte Segurantzaren integratzeko gain-kostuarengatik. La Poste-k monopolioa du 2011 urtera arte.

Estatuarentzat zero kostuan egiten den integrazio oro ez da laguntza (gain-kostu anormala baizik).

Juan Luis Kruzelegik, Euskadin Laguntza Publikoak ematea. Egungo esparru juridikoa-z aritu zen.

Lehiaren Defentsako Lege berria dugu, 15/2007 Legea, duela urtebete indarrean sartu dena. Batzordeak ondo ezagutzen du Euskadi: Magefesa auzia (1989. urtetik berreskuratu gabeko laguntza). Lehen aldia Espainian, Daewoo auzia, 1998an: Tratatuarekin bateraezinak diren laguntzak eta kokatzeko pizgarriak aztertzen dituenak.

Ramondín, Errioxatik Guardiara etorri zen, kokatzeko pizgarriekin. Pride of Bilbao auzia: erretiratuentzako eta ikasleentzako txartelak erostean zetzan. Estatuko zerga-neurrietatik aldentzen diren zerga-neurriak dira, euskal enpresak diskriminatu egiten baititu estatukoaren aurrean.

Era berean, abuztuaren 4ko 80/2008 Salbuespenari buruzko Erregelamendu Orokorra dugu. Jakinarazi behar ez diren laguntzak zein diren ezartzen du. 2009tik aurrera, Nerbioiko ezkerlaldeko enpresentzat bakarrik izan daitezke laguntzak. Inbertsiorako laguntzak ETEentzat soilik, % 10 eta 20 bitartean.

Arrisku-kapitaleko hainbat neurri daude bideragarritasun-berme nahikoa ez duten inbertsio berrietarako. 18108/2008: proiektu marko bat onartzen da, mota honetako inbertsioak Batzordeari jakinarazteko asmoz.

Salbuetsi egiten ditu ontzigitza, ikatz eta siderurgiako sektoreetako laguntzak.

Garrantzizkoak dira, halaber, bermeko laguntzak, estatuak funts publikoen bitartez ematen dituen abal modura. Abalak laguntza publikoa eratu dezake, eta primak analizatzen dira baxuak izan ote daitezkeen ikusteko. Lehenik eta behin, inbertitzaile pribatua dagoen ikusi behar da, horixe baita merkatu-ekonomiaren irizpidea. Ezin du maileguaren % 80a baino gehiago estali.

Zailtasunak dituzten enpresei emandako laguntzak kontrolatu nahi dira. Jakinarazpen berri bat dago, interes erkideko edo interes orokorreko proiektuei finantza-laguntza emateko. Salbatzeko laguntzak dira, 6 hilabeteko baino gutxiagoko eperakoak, berregituratze-plan bat eginez.

Aitor Orenak Laguntza ilegalak berreskuratzea. Foru Aldundien zerga-laguntzak ("zerga-oporrak") berreskuratzeari buruzko arazoa ondo azaldu zuen.

1996an honakoa zen egoera: presazko neurriak, 10 urterako zerga-oporrak, inbertsioei eta lanpostuei buruzko baldintza batzuekin emandako laguntzak gertatu ziren.

Enpresak 2.500 milioi pezetako inbertsioak eginez eta 45 lanposturen sorrera eskainiz gero, sozietate-zergaren salbuespena 10 urtez emana izan zen. Laguntzak ilegaltzat jo ondoren berreskuratzeko planteatzen diren arazoak anitzak dira. Tratatuaren 87. artikulua debekatu egiten ditu laguntza ilegal bateraezinak, Erkidegoaren barneko transakzio edo trukeetan eragina duten heinean. Laguntza ilegalik izanez gero, laguntzen aurreko egoera berrezarri behar da. Itzulketak interesak sortuko ditu, eta atzerapenik gabe egingo da, dagokion estatu-zuzenbidearen arabera, erabakia berehala bete dadin bideratzeko aukera ematen badu.

Tratatuaren 10. artikulua ezartzen duenez, lege-lankidetzako printzipioa beharrezkoa da Estatuaren eta Batzordearen artean. Salbuespen-kasu batzuk badira:

1. Erkidegoko Zuzenbidearen printzipio orokorrak: Fede ona, konfiantza legitimoaren babes, defentsa-eskubidearen errespetua, proportzionaltasuna eta konfiantza legitimoa.

Zerga-araua Aldizkari Ofizialean argitaratu bada, enpresak fede onez jokatu du. EEIko 88-3 artikuluan esaten denez, nahikoa den aurrerapenarekin jakinaraziko zaio Batzordeari, Aldundiak uste badu neurri horiek ez direla selektiboak ezta estatu laguntzak ere.

Konfiantza legitimo printzipioa aipatzen da: Arau argitaratua eta Aldundiaren ebazpen positiboa. Defentsa-eskubidea: Motibazioa argi azaltzen da, eta baita, proportzionaltasun printzipioa ere, baina non dago laguntza ilegalak berreskuratzeko Prozedura Legea? Hemen dago benetako legediaren hutsune nabarmenena, eta prozedurarik gabe ez dago nondik heldu gai honi. Indarrean dagoen estatuko prozedura administratiboak beste epaiketa luze bat sortu besterik ez du egiten, eta arazo korapilatsu bat sortzen du.

2. Preskripzioa sortzen du egoera honek.
3. Erabateko ezintasuna azaltzen da laguntzak berreskuratzerakoan.

Batzordeari interesatzen zaio:

- Laguntzak jaso dituzten enpresak identifikatzea.
- Berreskuratzeko objektua argitzea.
- Ebazpena betetzeko egutegia zehaztea.

Zigor posibleak lirateke: Kopuru bat ordaintzea, oroharreko zenbatekoan oinarrituta.

Joxerramon Bengoetxeak: *Zerga-neurriak eta Estatuaren laguntzen Kontrola. Azore uharteak epaiaren doktrina, eta foru-esparruko zerga-neurrietan duen aplikazioa* azaldu zigun.

Estatu barneko lege fiskalak aztertzerakoan, Nafarroako lege-blindajearen auzia azaltzen du: helegitea Konstituzio Auzitegian bakarrik egin daiteke.

Merkatuan faltsutze bat egiteko abantailak dira laguntzak. Estatu laguntzen gaian erakunde infraestatalak agertzen dira, geografia-eremu infraestatala, ze normalean enpresak mugitzen diren funtsezko rola arlo honetan ematen baita.

1997ko 400, 401 eta 402 auzi metatuak azaltzen ditu, Estatuko Administrazioa Gipuzkoaren Batzar Nagusien aurka; eta beste hainbat. Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo bestelako estatuetan egoitza duten enpresen diskriminazioa azaltzen da, kokatzeko askatasunaren printzipioaren barnean; Tratatuaren antzinako 52. artikuluan jasoa dagoena. Egoera kuriooa izan zen ikustea estatuko abokatuak barne-zuzenbidean arau horien aurka egiten zuela, Justizia Auzitegiaren aurrean horien alde egiteko betebeharra zuen bitartean. Kasu hauek erakutsi zuten larritasuna honakoa zen: abokatu nagusiak ez zuen ondo ulertu foru-zergen sistema, eta Espainiako zerga-arauak foru-lurraldean ere aplikatzen zirela uste zuen. Estatu mailan lortutako akordio bati esker, epaiketa aurreko arazoa baztertu egin zen, ez dago Erkidegoko zuzenbidean epairik, eta Auzitegi Gorenaren esku utzi zen auzia; epaia “eskandalutzat” kalifikatzerainoko iritziak azaldu ziren, Erkidegoko zuzenbidea batera ez ezagutzearen ondorioz; kaosa.

Portugalen eta Azore uhartean (lurralde periferikoa eta uhartea) arteko auzia guretat, zuzenbidearentzat, oso garrantzizkoa izan da. Batzordeak ebatzi zuen kasu horretan emandako diru kopuruak eskualde-garapenerako laguntza zirela, eta gainera, ez zirela Batzordeari jakinaraziak izan. Portugalek zioen ez zirela estatuaren laguntzak, ez zirelako laguntza selektiboak. Zerga-sistemaren izaerarengatik justifikatuta daude, erakunde infraestatala baita.

Erreferentzia-esparruaren irizpidea estatuaren geografia-zona batera muga daiteke, baldin eta funtsezkoa bada bitarteko politikoa eta ekonomikoa definitzeko. Europako Auzitegiaren arabera, autonomia konstituzional edo instituzionala duen erakunde infraestatala izan behar du. Gobernu zentralak edukian zuzenean esku hartzerik izan ez duelarik; prozedura edo erabaki-autonomia duena. Zerga-tasa murriztuak aplikatzeak eratorritako finantza ondorioak ezin dira bestelako laguntzekin konpentsatu; ekonomia eta finantza-autonomia funtsezkotzat jotzen ditu. Kasu honetan, ez zen hirugarren baldintza betetzen, gobernu zentralak kudeatzen baitzituen finantza-fluxuak.

Erabaki honen ondoren, eta gure arazo fiskalei lotuta, estatu mailan aurkeztutako helegite berriak zirela-eta, Euskadiko Auzitegi Nagusiak beste helegite bat aurkeztu zuen Luxenburgoko Justizia Auzitegian.

Euskadiko kasuan, Auzitegiak zioen ez dagoela zalantzarik autonomia instituzionalaren inguruan. Batzar Nagusiek independentziarekin jokatzeko dute zerga-tasa finkatzeko orduan. Auzia da, ea gobernu zentralak esku har dezakeen Batzar Nagusien barnean. Funtsezko auzia hirugarrena da, finantza-autonomiari buruzkoa: zerga-tasa baxuagoa aplikatzeagatik, ea gobernu-zentralaren finantza-fluxurik izan den edo ez. Justizia Auzitegiaren iritziz, ez da hori gertatzen. Fluxuak, hala nola, kupo-sistema, bestelako zerga zuzen edo zeharkakoengatik doikuntza eta konpentsazioak ditu, eskualde-arteko konpentsazio-funtza, GSKo kutxa bakarraren mekanismoa, etab.

Gobernu britainiarrak aurkeztutako oharrei jarraituz, Batzordearen arabera, kupoa gutxiegi balioetsia zegoen, baina ez dago konpentsaziorik. Eskualdeko tributazioaren finantza-ondorioak asumitzen dira.

Jokoan dauden interesei buruzko auzia behin betiko ebazten duen epaia da, forua salbatzen duen epaia. Erkidegoko estatusa aitortzen zaie eskualde konstituzionalei. Orain zehaztekoa da zein den Erkidegoko zuzenbideak erakunde infraestataleki, eskualdeei edo estaturik gabeko herriei ematen dien aitortpen edo errekonozimendua. Esplizituki, autonomia-estatus berri bat aitortzen da, eta Batzordearen argudio nagusia ezeztatzen ari da; hau da, estatu baten barruan ezinezkoa dela autonomia berezirik izatea. Batzordeak ez zuen ikusten erreferentzia-esparrua zuzentzeak zergatik ez zuen estatu-esparrua izan behar. Lehen aldiz, Batzordearen buru-itsutasun horri buelta eman zaio eta erakunde infraestatalekiko sentiberatasun handiagoa azaldu du Europar auzitegiak; horrela, etorkizunean esparru ekonomiko eta politiko desberdinak arautzeko gaitasun berri bat azaltzen delarik.